

**ZENTRO SOZIOSANITARIOEK ETA ADINEKOENTZAKO ZENTROEK
ESKAITZEN DITUZTEN ZERBITZUAK**



ZERBITZUA	AZALPEN OROKORRA	JARDUERAK	EDUKIA
Beharrianen diagnostikoa eta banako arreta plana	Erabiltzailearen beharrianen diagnostiko integrala egiteko eta banako arreta plana modu pertsonalizatuan ezartzeko beharrezkoak diren jarduerak egiten dira, autonomia pertsonala sustatu eta bizikalitatea hobetzen duen arreta integral bat emateko.	Beharrianen diagnostikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzailearen balorazio integral bat egiten da, jakiteko zer beharrian eta gaitasun dituen. • Balorazioa egiteko diziplina anitz hartzen dira kontuan; hainbat arlotako profesionalek hartzen dute parte.
		Banako arreta plana (BAP) egitea	<ul style="list-style-type: none"> • Banako arreta planean (BAP), antzemandako beharrian eta gaitasunak oinarri hartuta ezarritako helburuak eta jarduerak jasotzen dira. • Erabiltzaileak (bere egoerak horretarako aukera ematen badio) eta/edo haren familiak edo legezko ordezkariak parte-hartze aktiboa izaten dute plana egitean. • Plana gutxienez ere urtean behin ebaluatu eta berrikusten da, bai eta erabiltzaileak eskatzen duenean edo erabiltzailearen egoera nabarmen aldatzeagatik planaren helburuak ere aldatu behar direnean ere. • Plana hizkera erraz eta ulergarrian idazten da. • Erabiltzaileari, senideari edo tutoreari ematen zaio plana (egoeraren arabera), eta argi azaltzen zaio haren edukia.

ZENTRO SOZIOSANITARIOEK ETA ADINEKOENTZAKO ZENTROEK ESKAITZEN DITUZTEN ZERBITZUAK



ZERBITZUA	AZALPEN OROKORRA	JARDUERAK	EDUKIA
Oinarrizko zainketa pertsonaletarako zerbitzua	Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zainketak eta arreta pertsonala erabiltzaileei bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak egiten dira; betiere saiatzen da haien autonomia pertsonala mantentzen eta, ahal dela, garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak sustatzen eta pertsonaren narriadura prebenitzen eta/edo ekiditen.	Garbitasun, higiene eta apainketa pertsonala	<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzaileen garbitasun pertsonala bermatzen da; horretarako behar duten laguntza maila ematen zaie, betiere haien intimitatea errespetatuz. Zentroak jartzen ditu garbitasunerako produktu arruntak (xaboiak, koloniak, hortzetako pasta, xanpua, gela, eta abar). Beste marka bat edo produktu jakin bat nahi badute, erabiltzaileek berek ordaindu beharko dute. Autonomia mugatua duten pertsonen laguntza ematen zaie janzteko, biluzteko, garbitzeko, oheratzeko edo eguneroko bizitzan egiten den beste edozein jardueratarako.
		Elikadura	<ul style="list-style-type: none"> Beren kabuz jan ezin duten pertsonen laguntza ematen zaie, kasu horietarako behar diren baliabide teknikoak erabilia. Sukaldeko zerbitzua nutrizio egokia aintzat hartuta egiten da, eta janariaren kantitatea, kalitatea eta mota erabiltzaileen beharrezkoetara egokituko dira.
		Osasuna zaintzea	<ul style="list-style-type: none"> Esku hartzeko programa eta protokolo batzuk daude erabiltzaileen osasunaren zainketa bermatzen dutenak. Zentroetan, erizainak eta osasun-laguntzaileak daude. Medikurik ez duten zentroetan, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren laguntza dago.
		Laguntza mugitzeko arazoak dituztenentzat	<ul style="list-style-type: none"> Mugikortasuna mugatua duten pertsonen behar duten laguntza ematen zaie.
		Eguneroko bizimodurako oinarrizko trebetasunak mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> Trebetasun motorrak, trebetasun okupazionalak eta harremanetarako trebetasunak sustatzeko, narriadura moteltzeko eta mugatua dauden gaitasunak berreskuratzeko jarduerak eta programak egiten dira.
		Euste-neurririk ez erabiltzea	<ul style="list-style-type: none"> Helburua da euste-neurririk ez erabiltzea; hori dela eta, neurri horiek kasu berezietarako baino ez dira erabiltzen, medikuak aginduta, soilik terapian behar denean, eta betiere haiei lotutako sintoma eta zeinuak murriztuta.

ZENTRO SOZIOSANITARIOEK ETA ADINEKOENTZAKO ZENTROEK ESKAITZEN DITUZTEN ZERBITZUAK



ZERBITZUA	AZALPEN OROKORRA	JARDUERAK	EDUKIA
Zerbitzu tekniko espezializatua	Zentro motaren arabera, jarduera eta programa espezializatuak eskaintzen dira hainbat arlotan.	Adinekoentzako zentroetako jarduera eta programa bereziak.	<ul style="list-style-type: none"> Bermatuta dago zaintzaileak, zerbitzu medikoa eta erizainak beti egotea. Jarduera eta esku-hartzeak egiteko, profesional ez osatutako diziplina anitzeko talde bat dago; profesional horiek profil egokia dute ongizate fisiko, psikologiko eta sozialerako arreta bat eskaintzeko. Besteak beste, fisioterapia arloko profesionalak daude. Horrez gainera, Leioa laguntza-zentroan terapia okupazionala eta psikiatria-zerbitzua daude.
		Zentro soziosanitarioetan eta mendetasuna duten helduentzako zentroetan egiten diren jarduera eta programa bereziak.	<ul style="list-style-type: none"> Bermatuta dago zaintzaileak, zerbitzu medikoa eta erizainak beti egotea. Jarduera eta esku-hartzeak egiteko, profesional ez osatutako diziplina anitzeko talde bat dago; profesional horiek profil egokia dute ongizate fisiko, psikologiko eta sozialerako arreta bat eskaintzeko. Besteak beste, arlo hauetako profesionalak daude: psikologia, fisioterapia eta terapia okupazionala.
		Gizarte Lana. Erabiltzaileari, haren familiari eta/edo tutoreari zuzendutako izapide eta jarduerak.	<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzaileei, familiei eta/edo tutoreei laguntza ematen zaie zentrorra sartzeko eta egokitze prozesuan eta zentroko egonaldian. Erabiltzaile, familia eta/edo tutoreen interesekoak diren baliabide eta zerbitzuen berri ematen da, bai eta izapideen berri ere. Horrez gainera, laguntza ematen zaie izapide horiek egiteko behar badute.
Aisia eta astialdiko zerbitzua	Jarduera hauen helburua da erabiltzaileek ondo pasatzea eta haien garapen pertsonala sustatzea. Horretarako, ongizate emozionala areagotzen duten jarduerak egiten dira: aisialdikoak, astialdikoak, kirol-jarduerak, eta abar.	Aisia eta astialdia	<ul style="list-style-type: none"> Zentroetan, erabiltzaileen ezaugarrietara egokitutako aisia eta astialdiko jarduerak egiten dira.

ZENTRO SOZIOSANITARIOEK ETA ADINEKOENTZAKO ZENTROEK ESKAITZEN DITUZTEN ZERBITZUAK



ZERBITZUA	AZALPEN OROKORRA	JARDUERAK	EDUKIA
Ostatu-zerbitzuak	Erabiltzaileen elikadurari eta zentroaren garbiketa eta mantentzeari lotutako jarduerak egiten dira.	Jantokia	<ul style="list-style-type: none"> Beharrezkoak diren otorduak egiten dira (gosaria, bazkaria, askaria eta afaria), zentroaren ordutegiaren arabera. Erabiltzaileek, betiere, bi menu izaten dituzte aukeran. Gutxienez ere 24 ordu lehenago ematen da menuen berri. Beharrezkoa denean, gelan edo zainketa berezietarako aldean egiten dira otorduak.
		Gelak garbitzea	<ul style="list-style-type: none"> Egunero garbituko dira gelak, eta maiztasun handiagoaz hala behar denean.
		Erabiltzaileen arropa mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> Zentroa arduratzen da arropa garbitzeaz, lisatzeaz eta pasaratzeaz.
		Oheko, mahaiko eta komuneko arropa	<ul style="list-style-type: none"> Zentroak jartzen du oheko, mahaiko eta komuneko arropa. Oheko arropa behar den guztietan aldatzen da, eta, edozein kasutan, gutxienez ere astean behin edo erabiltzaile berri bat sartzen den bakoitzean. Maiztasun beraz aldatzen dira eskuoihalak, aho-zapiak, mahai-zapiak eta gainerako arropa zuria.
Zuzendaritza eta administrazio zerbitzua	Zentroak zuzendu, administratu eta kudeatzeko jarduerak egiten dira.	Espediente pertsonala	<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzaile bakoitzaren espediente pertsonala izapidetzen da; espedientean, erabiltzailearen egoera pertsonalari eta behar duen arretari buruzko informazioa jasotzen da, bai eta txosten teknikoak, diagnostikoak, tratamenduak eta banako arreta planak ere (plan horien jarraipena, ebaluazioa eta berrikuspena barne).
		Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak	<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzaileari Laguntzeko Unitatearen bidez izapidetzen dira iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.